

Ohi den otoitzarekin bukātu da batzarra.

Euskaltzainburua,
LUIS VILLASANTE

Idazkaria,
JUAN SAN MARTIN

1974 - XII - 27

Azkoitin, Insausti jauregian, 1974ko abenduaren 27an, goizeko 11 t'erdietan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; G. Manterola ohorezko euskaltzain jauna; L. Akesolo, N. Altxola, G. Aresti, M^a F. Arregi, J. Berrojalbiz, K. Esnal, J. Fernández Setien, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, I. Sarasola, P. Uribarren eta A. Zatarain laguntzaile jaunak, J. San Marin idazkari dala.

O. Apraiz, Dassance, Dihárce, I, López-Mendizabal, Larzabal eta Larre jaunak ezin etorria adiarazten dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Azaroko agiria onhartzen da.

a) **HAR-EMANAK:**

Bilinguismoa Institutoetan erabiltzeko, Bilboko Nesken Institutoan bilkura bat eratu zuen bertan irakasle den Borja Berandiaran jaunak, Bilkura haretan X. Kintana eta Julia Berrojalbiz egon ziren, eta azkehengo honek zenbait xehetasun eman ditu. Urtarrilean berriz batzartuko dira, eta hauk biok eta J.L. Lizundia izendatzen dira Euskaltzaindiaren izenean agertzeko.

HARTU DIREN LIBURUAK:

Jakin argitaldaria emanik, Bergiarmenen **Sei idazle plazara. I. Mitxelena, Aresti, Larresoro;** J. Fernández Setien jaunak emanik, **3 ipuin, Usurbilgo ikastolako haurrak eta Gordailu-k argitaratutako Haurrentzako Liburuak eta Idazketa hiztegia;** P. Lafitte jaunak "Gure Herria"n argitaratu duen lan baten separata. **Mende huntako Euskaldun idazleen pentsa-bideak, J. M. Satrustegi jaunak "Fon-**

tes"en argitaratu duen lan baten separata, **Axularren itzala**; J. M. Satrustegi jaun berak, **Leyendas de Vasconia**. Brujo /2/ gizasorgina, 1975-eko egutegia; **Clavijo** N°7 aldizkaria (San Millán de la Cogolla-n egin genuen bileraren berri ematen duena) Erriojako Diputazioko lehendakari jaunak bidalia; Julián Olabarria jaunak "Sancho el Sabio"n argitaratu duen lan baten separata, **Linaje de Zárate - Fundación y Genealogía**. Guzietan eskerrak ematea erabakitzen da.

b) HERRI ETA HERRITARREN IZENEN LEHEN ZERRENDA.- Gai honi buruz xehetasun batzuk ematen ditu, horretarako izendaturik dagoen batzordeko idazkari den Lizundia jaunak, eta hurrengo batzarrerako uzten da bera tratatzea.

BILERA IDEKIA

Ondorean, herriari begira, bilera idekia izan da Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-koekin elkartzurik. Alvaro del Valle y Lersundi jauna mahai-buru, Luis Villasate, Jean Haritschelhar, Juan Ignacio Uria (R.S.V.A.P. elkarteko idazkaria) eta Juan San Martin mahaiko direla; gela nagusia jendez beterik.

Euskaltzainburuak, agurrez, Real Sociedad Bascongada, **Azkoitiko** zaldun-txoak eta euskarari buruzko txostena irakurriaz.

Euskaltzain-buruordezkoak, Joanes Etxeberri Sarakoa Azkoitian mediku, euskaltzale eta euskal izkribatzaile bezala agertuaz, txostena.

Pedro Yrizar euskaltzain laguntzaile azkoitiarrak (aspaldiko urteetan Madrid-en bizi dena) bere ezin etorria agertu du, eta bere txostena J.L. Lizundia jaunak irakurri du: Aditza euskalki guztietan.

Juan San Martin idazkari jaunak, beste txosten labur bat: "Gavon sariac" gure ilustrazioaren sarreran. Eta bukaeran, Conde de Peñaflores-aren **Misa de 6º tono** musika ez-ezagunaren kopia bat ematen dio A. Valle Lersundi jaunari, Eibarko parrokiako artxiboan aurkitu zuenetik.

Alvaro del Valle y Lersundi jaunak, agurrezko hitzak, euskaraz eta erdaraz, beren elkartearen euskal-kulturagintza adiaraziaz, euskararen alderako gogoia agertuaz eta biltzar hontara etorri direnak eskertuaz.

Ondorean, Valle Lersundi jaunak, hiru probintzietako euskaltzain ohorezkoen beren bazkide diplomak banatzen dizkie: Gabriel Manterola bizkaitarrari, Odón

Apraiz erabarrari eta Ixaka López Mendizabal gipuzkoarrari. J.I. Uria jaunak adierazten du I. López-Mendizabal eta O. Apraiz jaunen etorri ezina, biak gaixorik daudelako.

Euskaltzaindiko idazkari-ordeak 1975. urteko batzar egutegiaren berri ematen du: Urtarrilaren 31ean, Bilbon Euskaltzaindiko etxean; Otsailaren 28an, Donostian, Diputazioan; Martxoaren 31-tik apirilaren 5era bitartean, Oinatin edo Arantzazun; Apirilaren 25ean, Donostian, Diputazioan; Uztailaren 30ean, Donostian, Diputazioan; Abuztuaren 17an, Okendon Ullibarriren gorasarrez; Irailean, oraindik jartzeko gelditzen den egun batean, Donibane Garazin Jean Barbier-en gorasarrez; Urriaren 31an, Donostian, Diutazioan; Azaroaren 28an, Bilbaon edo Lemoan Eguzkitzaren gorasarrez; Abenduaren 26an. Donostian, Diputazioan.

Zabala jauna mintzatzen da R.S.V.A.P.en saileko den Bergarako "Juan Irigoien" elkartearen lanak adiaraziaz.

Aurtengo esaminetan onhartu diren D mailako 104 Euskal Irakasle titulu banatzen dira. Aurreko urte bietakoak. Elgoibar eta Lekeition banatutakoak kontaturik, guztira 284 irakasle titulu.

Beste gabe, batzarra bukatu da eta Insaustiko jauregi berean anaitasunezko bazkaria egin da.

Euskaltzainburuz
LUIS VILLASATE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN